



2025SECG0004
4.bilera: OHIKOA 2025/06/26

TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN BILKURA-AKTA

BILERA ZK.: 04/2025
EGUNA: 2025/06/26
HASIERA ORDUA: 17:05
AMAIERA ORDUA: 17:30
TOKIA: Bilera gela, 2. solairua.

BERTARATUAK:

Alazne Txurruka Allika, alkatea.
Asier Urain Buenetxea, lehen alkateordea.
Jon Riaño Ojanguren, bigarren alkateordea.
Isidro Aristi Oruezabal, Elkarrekin Orain Deba.

Bertaratzea desenkusatzeko du:

Monica de Prado Paniagua, hirugarren alkateordea.

Idazkaria: Jose Luis Salaberri Iñarra.

ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK

1. Aurreko bilkuraren akta onartzea, hala badagokio.

Aurkeztu zen 2025eko otsailaren 27an eginiko bileraren akta, Tokiko Gobernu Batzarrak, onar zezan.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, onartu zuen 2025eko otsailaren 27an eginiko bileraren akta.

2.- Ekaineko Udalbatzarraren bileran jorratuko diren gaien azterketa.

Alkateak azaldu zituen Osoko Bilkuraren gai zerrendako gaien buruzko informazio orokorra emanez.

1. *Aurreko bilkurari dagokion aktaren zirriborroa onartzea, hala badagokio.*

2. *Alkatetza dekretuen kontrola.*

Alkateak azaldu zuen Osoko Bilkuraren azken bileraren egunetik emandako dekretuen zerrenda garrantzitsuenak azpimarratuz:

- 262/2025 Dekretua, «Euskal Fondoa: Kuota eta dirulaguntza.»
- 267/2025 Dekretua, «Deba, Itziarko eta Lasturko zezen plazen muntaketen segurtasuneko eta osasuneko koordinatzailea kontratatzea.»
- 268/2025 Dekretua, «TAOko langile baten kontratazioa.»
- 274/2025 Dekretua, «Arte Eskola Berriko leihoak aldatu.»
- 275/2025 Dekretua, «Arte Eskola zaharreko teilatua konpondu.»

- 279/2025 Dekretua, «Esleitzea Errotazar futbol zelaian aerotermia sistema baten hornidura eta instalakuntza gauzatzeko kontratua. Giroa, SA.» 50.407,07 eurotan .
- 280/2025 Dekretua, «Esleitzea 2025eko udan hondartzako toldo zerbitzuaren kontratua. K.P.F.»
- 282/2025 Dekretua, «Brigadarako langile bat kontratatzea.»
- 288/2025 Dekretua, «Sorozabal pasealekuko baranda margotzea.»
- 304/2025 Dekretua, « Zumardiko karparen alokairua, muntaketa eta desmuntaia.»
- 305/2025 Dekretua, «Bizikletak aparkatzeko arkuak.»
- 306/2025 Dekretua, «Bizikletak konpontzeko moduluak.»

Tokiko Gobernu Batzarrak jakinaren gainean geratu zen.

3. Onartzea, hala badagokio, 2024ko ekitaldiko Kontu Orokorra.

Tokiko Gobernu Batzarrak jakinaren gainean geratu zen.

4. Onartzea, hala badagokio, Ostolaza Udal Liburutegiaren arautegiaren aldaketa.

Alkateak azaldu zuen gaia Herritartasun Batzordean ekainaren 17ko bileran landu zel agaia, eta Batzordeak aldeko irizpena eman zuela, eta aldaketa nagusiak hauek direla:

- Liburutegiaren erabilera adin guztietako pertsonei irekitzen dela, eta liburutegiaren txartela eskatzen duen edonori emango zailei txartel hori.
- Mailegu zerbitzuan ere aldaketak daudela, Euskal Autonomia Erkidegoko Liburutegi Sistemaren barruan dauden liburutegietan erabiltzen diren mailegu arauetara egokitze.
- Eta, azkenik, araudi zaharrean ordenagailuei buruzko atal bat dagoela, eta, une honetan liburutegian erabilera publikoko ordenagailurik ez dagoenez, atal hori kendu egingo dela.

Tokiko Gobernu Batzarrak jakinaren gainean geratu zen.

5. Onartzea, hala badagokio, “Ekainak 28, Sexu Askapenaren eta LGTBI + Harrotasunaren Nazioarteko Eguna” Adierazpen Institutuzionala.

Alkateak adierazpenaren alderdi nagusiak azaldu zuen.

Tokiko Gobernu Batzarrak jakinaren gainean geratu zen.

6. Eskari eta galderak.

3. Berrestea, hala badagokio, 307/2025 Alkatetza Dekretua, Gazte Artista Bisual berriak sustatzeko sariaren 2025eko deialdia ebazten duena.

Alkateak azaldu zuen sariaren oinarrien arabera saria ebaztea Tokiko Gobernuaren Batzarrari dagokiola, eta artista irabazleen erakusketa uztailean egingo dela, baina, Kultura teknikariak azaldu zuenez, komeni zen erakusketa ekainaren erdialde ingurura aurreratzea; alde batetik, zaintzarik lortzeko aukera egon ez delako, eta, bestetik, aurreikusita dauden kontzertuek arazoak eragin ditzaketelako erakusketaren espazioan.

Horrela, araudiak alkateari premiazko kasuetan, beste organo bati dagozkion erabakiak hartzeko esleitzen dion ahalmena erabiliz, sariaren 2025eko deialdia 307/2025 Alkatetza Dekretuaren bitartez ebatzi zen, eta orain Tokiko Gobernuaren Batzarrari dagokio erabaki hori berrestea, edo atzera botatzea.



2025SECG0004

4.bilera: OHIKOA 2025/06/26

Bestalde, azaldu zuen erakusketarekin sortu zen arazoa. Izan ere, artista irabazleak muntatu duen erakusketa ez baita deialdian aurkeztutako proiektuan jasotzen zena, eta horrek atsekabea sortu du proposamenak aztertu zituen epaimahaiaren kideen artean. Oinarrietan ez dela berariaz jasotzen muntatuko den erakusketa deialdira aurkeztutakoa izan behar denik, betidanik ulertu baita saria emateko baloratu zena muntatu behar zela. Hala ere, artisten logikak ez omen da gainerakoenaren berdina, eta artista irabazleak ulertzen zuen, bere lanak baziren, erakusketa muntatzeko askatasun osoa zuela. Epaimahaikide batzuekin hainbat gorabehera izan eta gero, erakusketa zertxobait txukundu zela, baina oinarriak aldatu beharko direla horrelakorik saihesteko.

Gaia aztertu ondoren, Tokiko Gobernuaren Batzarrak, aho batez, erabaki zuen 307/2025 Alkatetza Dekretua berrestea, eta oniritzia eman zion sariaren oinarriak aldatzeko prozedurari hasiera emateari.

4. Debako udalerrian, baina Itziarko Toki Entitate Txikiaren lur eremutik kanpo, kultur programak edo jarduerak egiten dituzten Deban erroldatutako irabazi-asmorik gabeko pertsona fisikoei eta tokiko kultur elkarteei zuzendutako dirulaguntzen ebazpena.

Alkateak azaldu zuen diru-laguntza hauetarako 25.000 euroko partida bat zegoela, 8 proiektu aurkeztu zirela, eta horietako bat, Batukada taldeak aurkeztutakoa hain zuzen, kanpoan gelditu zela, eskaera ez zelako taldeak egiten dituen jarduketarako, taldeak behar duen material erosketarako baizik. Horrela 7 proiektu gelditu zirela, eta, beste urtetan ez bezala, aurten, eskatutako kopuru osoa emango zaiela, horretarako nahiko diru kopurua egon delako. Horrez gain, azaldu zuen Gure Giro eta Musika Banda aurten ez zutela eskaerarik aurkeztu eta horrek eragin zuela diru nahikoa egotea. 25.000 euro zeunden, eta 20.406 euro erabili dira, eta, horrela, sortu den soberakina beste ekintzetarako erabili ahalko zela.

Ikusita eskaerak aztertu dituen instrukzio-organoak 2025eko ekainaren 17ko bileran emandako ebazpen proposamena.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, hau erabaki zuen:

Lehenena.- Ez onartzea Batukada taldeak aurkeztutako eskaera, izan ere eskaera, taldeak daukan proiektuorako edo hartu emanetarako behar duen material erosketan datza, eta proposamenean ez dute proiektu zehatzik aurkeztu, eta dirulaguntza horiek arautzen dituen oinarrietako bigarrenak laguntzetatik kanpo uzten ditu material suntsikorraren erosketa eta zeharkako kostuak.

Bigarrena.- Ondoren jasotzen diren dirulaguntzak ematea Debako udalerrian, baina Itziarko Toki Entitate Txikiaren lur eremutik kanpo, kultur programak edo jarduerak egiten dituzten Deban erroldatutako irabazi-asmorik gabeko pertsona fisikoei eta tokiko kultur elkarteei zuzendutako dirulaguntzen 2025. urteko deialdiaren barruan:

- Eskatzailea:	MIKEL AIZPURUA
Proiektua:	LIBURU ARGITALPENA
Lortutako puntuak:	89 puntu
Aurrekontua:	10.842,00€
Eskatutakoa:	9.000,00€
Dirulaguntzaren zenbatekoa:	9.000,00€

- Eskatzailea:	KULUNKA DANTZA TALDEA
Proiektua:	KULUNKA DANTZA EMANALDIA
Lortutako puntuak:	101 puntu
Aurrekontua:	4.580,00€
Eskatutakoa:	3.180,00€
Dirulaguntzaren zenbatekoa:	3.180,00€
- Eskatzailea:	SENZALA EUSKADI
Proiektua:	CAPOEIRA TOPAGUNEA
Lortutako puntuak:	86,5 puntu
Aurrekontua:	9.000,00€
Eskatutakoa:	3.000,00€
Dirulaguntzaren zenbatekoa:	3.000,00€
- Eskatzailea:	AITZURI ABESBATZA
Proiektua:	UDAKO KONTZERTUA
Lortutako puntuak:	75,5 puntu
Aurrekontua:	2.500,00€
Eskatutakoa:	2.500,00€
Dirulaguntzaren zenbatekoa:	2.500,00€
- Eskatzailea:	JOSEAN EGAÑA
Proiektua:	MAREA GORA
Lortutako puntuak:	79 puntu
Aurrekontua:	3.000,00€
Eskatutakoa:	1.600,00€
Dirulaguntzaren zenbatekoa:	1.600,00€
- Eskatzailea:	MARI SEARA
Proiektua:	ARIMEN GAUA
Lortutako puntuak:	95 puntu
Aurrekontua:	1.126,00€
Eskatutakoa:	826,00€
Dirulaguntzaren zenbatekoa:	826,00€
- Eskatzailea:	MIKEL ARROYO-HARLEY DAVISON TALDEA
Proiektua:	HARLEY DAVISON TOPAKETA
Lortutako puntuak:	61 puntu
Aurrekontua:	1.800,00€
Eskatutakoa:	300,00€
Dirulaguntzaren zenbatekoa:	300,00€

Hirugarrena.- Ebazpenarekin batera dirulaguntzaren %80a ordainduko da, eta gainontzeko %20a emandako dirulaguntza oinarri arautzailetako 9. oinarrian jasotakoari jarraituz justifikatu ondoren.



2025SECG0004

4.bilera: OHIKOA 2025/06/26

5. Eskari eta galderak.

Jon Riañok azaldu zuen Alkatetza Dekretuen artean bizikletak konpontzeko moduluak dagoela, Aldunditik diru-laguntza bat jaso dela eta horrelako bi modulu jarriko direla, bat Deban eta bestea Itziarren. Hodeirekin, udal aparejadorearekin, aztertzen ari direla modulu horiek non jarri.

Moduluak jartzeko hainbat aukerei buruz hitz egin zen erabakirik hartu gabe, eta aparejadorearekin hitz egin ondoren zehaztuko zela proposamena, et horren berri emango zela adierazi zen.

Tokiko Gobernu Batzarrak jakinaren gainean geratu zen.

Horrenbestez, beste aztergairik ez zegoenez, 17:30an amaitu zen Tokiko Gobernu Batzarraren bilera.

Joseluis Salaberri Iñarra
Idazkaria



Alazne Txurruka Allika
Alkatea

